

BARRERIK EGITEN EZ ZEKIEN PRINTZESA

Iñaki Aldai
ialday@irakasle.net

ADINA

3. 4. 5. eta 6. mailan egiteko egokia.

PERTSONAIAK

- . Kontalaria
 - . Erregea
 - . Erregearen alaba
 - . Osoro Bionbo (Hetxizeroa)
 - . Manbo Manbo (hetxizeroa)
 - . Hipnosius Doktorea (hipnotizatzailea)
 - . Mahatma Jir Khan (Magoa)
 - . Mezularia
 - . Baserritarra
 - . Umea 1
 - . Umea 2
 - . Umea 3
- * Nahi izanez gero ume gehiago jar daitezke.

Kontalaria: Ez horren urruti dagoen lurralde baten erregea eta bere alaba bizi ziren. Erregeak, urteetan, ez zuen bere alabatxo maitea barre egiten entzun . Beti triste ikusten zuen eta horregatik oso arduratuta zegoen.

Erregea: Ai, alabatxo. Ez duzu inoiz barrerik egiten. Zer duzu?

Alaba: Ez dakit aita. Beti aspertuta eta triste nago.

Erregea: Zergatik ez zara saiatzen alai egoten?

Alaba: Nola egoten da alai?

- Erregea: Nola egoten den alai? Zera... ba.. alai egoten da....
alai egoten. Zaila da esplikatzea.
Badakit! Oraintxe bertan lortuko dut zu alaitzea.
Begira nolako opari polita dudan zuretzat.
(Panpin bat oparitzen dio)
- Alaba: Beste panpin bat. 100 panpin baino gehiago erosi
dizkidazu.
- Erregea: Zer nahi duzu? Nahi duzuna erosiko dizut.
- Alaba: Aita, era guztietako jostailuak dauzkat. Ez dut
jostailurik behar.
- Erregea: Zer behar duzu pozik egoteko?
- Alaba: Ez dakit.
- Erregea: Eta barre egiten? Zergatik ez zara saiatzen barre
egiten?
- Alaba: Nola egiten da barre?
- Erregea: Ez da zaila. Ezpainak alboetara luzatu, ahoa apur
bat ireki eta barrutik ateratzen den soinua egin.
- Alaba: Saiatuko naiz. Ezpainak luzatu, *(ezpainak luzatzen
ditu)* ahoa apur bat ireki *(ahoa apur bat irekitzen
du)* eta soinua egin *(serio-serio eta naturaltasunik
gabe)* ja, ja, ja.
- Erregea: Ez, horrela ez neska. Barru barrutik atera behar
zaizu. Alai eta pozik egon behar zara.
- Alaba: Berriro alai? Baina nola?

Erregea: Honek ezin du horrela jarraitu. Zerbait egin behar dugu zuk barre egiteko.

Alaba: Baina zer?

Erregea: Badakit!
Mezulari! Etorri zaitetz hona!
Entzun ongi. Mundu osoan zehar mezu bat zabalduko duzu.

Mezularia: Zuk esan eta nik bete. Zein da mezua?

Erregea. "Nire alaba alaitu eta barre erazten duen jaun andereari urrezko 1000 txanpon emango dizkiot".
Zoaz oraintxe bertan!

Kontalaria: Mezularia, erregeak agindutako moduan, mundu osoan zehar ibili zen. Pentsa dezakezuen bezala, jende asko hurbildu zen gaztelura urrezko txanponak lortzeko asmoarekin.

Mezularia: Errege agurgarri eta txit gorena, hona hemen Afrikatik heldutako hetxizero famatuenak: Osoro Bionbo eta Manbo-Manbo

Erregea: Zer egingo duzue nire alabak barre egiteko?

Bionbo: Afrikako hetxizero famatuenak gara.....

Manbo: Eta edabe magikoa prestatuko dugu.

Erregea: Edabe magikoa?

Manbo: Edabea edan eta gero zure alaba sendatuko da.

Bionbo: Has gaitezen. Manbo, kazulara haundi bat.

Manbo: Kazulara handi bat. (*Kazulara ematen dio*)

Bionbo: Nilo ibaiko ura.

Manbo: Nilo ibaiko ura (*ur botila bat ematen dio eta Bionbok kazularara hustutzen du*).

Bionbo: Oilo zerraldoaren bi hanka

Manbo: Oilo zerraldoaren bi hanka (*hankak ematen dizkio*)

Bionbo: Behiaren gibel zati gordina.

Manbo: Behiaren gibel zati gordina (*Gibel zati bat ematen dio*).

Bionbo: Zaldiaren hezurra.

Manbo: Zaldiaren hezurra (*hezurra ematen dio*).

Bionbo: Eta bukatzeko ardiaren ileak.

Manbo: Ardiaren ileak. (*ileak ematen dizkio*).

Bionbo: Dena, suabe, suabe nahastu, (*Makila handi batekin dena nahasten du*) eta prest dugu edabea.

Alaba: Nik ez dut potinge hori edango.

Bionbo: Alai egon nahi duzu? Barre egin nahi duzu?

Alaba: Bai.

Manbo: Edabe magiko honek sendatuko zaitu (*edalontzia ematen dio eta alabak edan egiten du*).

Erregea: Pozik zaude?

Alaba: Lehen bezala aita.

Manbo: behar bada, apur bat gehiago edan behar duzu.
Tori.

(*Alabak edan egiten du*).

Erregea: Barre egiteko gogoak daukazu?

Alaba: Ez aita.

Manbo: Tira, tira edan beldurrik gabe (*berriro, edabea eman eta alabak edan egiten du*)

Alaba: Ai aita, ai aita.

Erregea: Zerbait sentitzen hasi zara?

Alaba: Bai aita.

Erregea: Oso ongi.

Alaba: Sekulako tripako minak sentitzen hasi naiz. Ai, ai,
ai.

Erregea: Tripako minak? Osoro Bionbo eta Manbo Manbo, Alde hemendik gezurri halakoak. *(makila batekin atzetik joka jarraitzen die.)*
Mezulari, pasa dadila hurrengoa.

Mezularia: Errege jakintsu eta ohoretsua, hona hemen, Egiptoko hipnotizatzailearik handiena: Osama Hipnosius doktorea.

Erregea: Hipnosius doktorea, lor dezakezu nire alaba pozik egotea eta barre egitea?

Hipnosius: Nire hipnosi metodoak ez du inoiz errakuntzarik izan.

Erregea: Zer da hipnosi metodoa?

Hipnosius: Lehenengo hipnotizatu egingo dut. Hipnotizatuta dagoela ariketa batzuk egingo ditugu, eta bukatzeko esnatu egingo dugu. Egon ziur, esnatu ondoren barrezka hasiko dela.

Erregea: Tira, proba egiteagatik...

(Hipnotizatzaileak poltsiko erloju bat ateratzen du).

Hipnosius: Orain kontzentratu eta jarraitu ezazu erlojuaren mugimendua begirada eta buruarekin. *(erlojuaren kate punta heldu eta erlojua erritmikoki alde batetik bestera mugitzen hasten da. Alabak buru eta begiradarekin jarraitzen du).*
1.....2....1....2...1....2.... logure handia etortzen ari zaizu. 1...2.... 1..2... Zure begiek pisu asko dute.

Erregea: Aizu, ziur zaude txorakeri hauekin zerbait lortuko duzula?

Hipnosius: Shh. Egon isilik edo bestela zu ere hipnotizatuko zaitut.
1...2...1...2 Begiak itxi egiten zaizkizu. 1...2...1...2 erabat lo zaude.

(Alabak pauso guztiak jarraitu eta lotan gelditzen da)

Hipnosius: Hasteko eta gorputza ongi sentitzeko arnasa sakon hartu eta botako duzu.
(alabak horrela egiten du)
Orain gorputzeko lotsak kentzeko ahate baten moduan ibiliko zara.

Alaba: *(Ahate baten moduan ibiltzen hasten da)*
Kua, kua, kua, kua.

Hipnosius: Bukatzeko eta gorputza ongi sentitzeko txoriak bezala hegan egingo duzu.
(Alabak horrela egiten du).

Hipnosius: Ederki. Jarraitu berriro nire erlojua.
1..2...1...2...Piskanaka esnatzen joango zara.
1...2...1..2.... esnatzen zarenean, oso pozik sentituko zara eta barre egiteko gogoia izango duzu. 1..2...1...2 Esnatu.

(Alabak begiak irekitzen ditu. Erregea eta Hipnosius berari begira gelditzen dira.)

Erregea: Nola zaude? Zerbait diferentea sentitzen duzu?

Alaba: Bai aita.

Erregea: Ederki.

Alaba: Zorabio ikaragarria sentitzen dut.

Erregea? Zorabioa? Ez zara pozik sentitzen?

Alaba: Nola egongo naiz, buruarekin alde batetik bestera erlojua segika egon banaiz?

Erregea: Baina, ez duzu beste zertxobait egiteko gogoa?

Alaba: Bai, hori ere bai.

Hipnosius: Banekien, azkenean barre egiteko gogoa izango zuela.

Alaba: Botaka egiteko gogoa dut! Plastiko bat mesedez!!!

Erregea: Hipnosius Doktorea... inpostore galanta zara! Alde hemendik (*makila batekin atzetik joka jarraitzen dio.*)
Mezulari, pasa dadila hurrengoa.

Mezularia: Errege txit gorena, zure aurrean Indiako magorik handiena: Mahatma Jir Khan.

Erregea: Jir Khan jauna, zer egingo duzu nire alaba sendatzeko?

Jir Khan: Indiako Jainkoek egindako hauts magiko hauek zure alaba poztu eta barre eraziko dute.
(*irin pakete bat ateratzen du*)

Erregea: Ziur zaude hauts horiek magikoak direla.

Jir Khan: Ixo! Jainkoak haserretu nahi dituzu?
(alabari hitz eginez) Eseri zaitez aulki honetan eta itxi begiak.
Nire hauts magikoak botako dizkizut.

Alaba: Baina aita...

Erregea: Eseri eta lasaitu.

Jir Khan: Ederki. Hasteko Indiako jainkoen babesaren lortzeko dantza bat egingo dut.

*(Alabaren inguruan bueltaka dantza arraro bat egiten du.
Ondoren irin eskukada bat burura jaurtitzen dio)*

Erregea: Zerbait sentitzen duzu?

Alaba: Ez aita.

Jir Khan: Agian hauts magiko gehiago beharko du.
(beste irin eskukada bat jaurtitzen dio)

Erregea: Eta orain? *(alabak buruarekin ezetz dio)*

Jir Khan: Kontxo! Zure alabak hauts razio espeziala behar du.

(hauts eskukada bi jaurtitzen dizkio. Alaba ahoa zabaltzen hasten da eta badirudi barrezka hasi behar dela)

Jir Khan: Begira jauna, barrezka hasi behar da.
Magorik handiena naiz!

(Baina, barre egin beharrean, alaba ezulka eta doministikuka hasten da.)

Alaba: Atxis, atxis, atxis.

Erregea: Ez duzu barre egiteko gogorik?

Alaba: Atxis, atxis. Aita hauts hauek hazkura baino ez dute eragiten.

Jir Khan: Maiestate, urrezko 1000 txanponak mesedez.

Erregea: 1000 makilkada emango dizkizut tranpati halakoa!
(makila batekin atzetik joka jarraitzen dio.)
Hau desastrea. Mezulari ba al dago besterik?

Mezularia: Bai errege ohoretsu eta laudagarria... zera... *(dudan dabil)* erreka ondoko baserritarra... eta.. eta... bere hiru laguntzaileak.

(Baserritarra bere 3 seme alabekin sartzen da.)

Erregea: Falta zitzaguna. Eta zuk zein txorakeri egin behar duzu nire alaba sendatzeko?

Baserritarra: Ez jauna, nik ez dut ezer egingo.

Erregea: orduan zertara etorri zara? Alde hemendik!

Baserritarra: Zure alabaren arazoa, nire seme alabek konpondu ahal dutela uste dut.

Erregea: Zure seme alabek?

Baserritarra: Jauna, eser gaitezen eta utzi beraiei.

Umea 1: *(alabari hitz eginez)* Nahi duzu gurekin jolastu?

Alaba: Zer da jolastea?

Umea 2: Has gaitezen eta kitto. *(eskutik elkarri helduz korro bat egiten dute).*

“Patataren korroan
Laranjak eta limoiak
Alupe alupe
Eserita gelditu nintzen”

Alaba: *(Irrifartsu dago)* Aita hemen barruan zerbait arraroa sentitzen hasi naiz.

Umea 3: Ederki. Berriro jolastuko dugu.

“Patataren korroan
Laranjak eta limoiak
Alupe alupe
Eserita gelditu nintzen”

Alaba: Ja, ja, ja. Hau dibertigarria. Ja, ja, ja.

Erregea: Ez da posible, barrezka ari da.

Alaba: Aita ez dakit nola esan, baina zerbait berria sentitzen dut.

Erregea: Pozik zaude!

Alaba: Hori da, pozik!

Baserritarra: Zure alabak behar duena beste ume batzuekin jolastea da. Besterik ez.

Umea 3: Beste jolas bat egingo dugu.
 Sorgina pirulina
 Erratza gainean
 Ipurdia zikina
 Kapela buruan
 Sorgina sorgina
 Tentela zara zu?
 Ezetz harrapatu!

(Jolasean ari direla, eszena amaitzen da).

Kontalaria: Errege eta baserritarraren seme alabak lagun
 handiak egin ziren.
 Eta honela, tranpa eta trukorik gabe, mundu osoan
 oso ezaguna ez zen baserritar hark, urrezko 1000
 txanponak jaso zituen.

Iñaki Aldai